

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Aurkezten dugun proiektua funtzionamenduan ipiniko dugu. Horretarako, faktore desberdin asko kontutan hartu behar izango ditugu. Gainera, hau martxan jartzeko hainbat funtsezko elkarte behar izango ditugu gu laguntzeko.

Gure produktuen likido berezia ez dugu erosten. Gure kasuan, produktu hau guk sortu egiten dugu, eta horretarako hainbat material kimiko erosi behar ditugu hau egiteko. Gainera, arropa ere ekoizten dugu eta horretarako hainbat hornitzaileei erosi behar izan diegu hau ekoizteko materialak:

HORNITZAILEAK

Giró Clofent

Enpresa honek, gure arropa ekoizteko funtsezko lehengaiak saldu egingo dizkigu. Haria, kordioak, kotoia...salduko digute eta 60 urte daramatenez haria egiten, profesional ikaragarriak dira eta lehengai ezinhobeak dituzte. Funtsezkoak izango dira gure proiektuan garrantzi asko izango dutelako.

BIBEY: Gure dendetan eta lantegietan, ezinbestekoa da garbitzaile talde bat izatea bakoitzean; horretarako, BIBEY enpresa kontratatu dugu. Pertsona hauen lana, instalazioak egunen amaieran garbitzea izango da, den-dena txukun gelditzeko. Espainiako enpresarik famatuenetarikoa da eta garrantzi handia izango dute gurekin.

DENDA SALTZAILEAK:

Gure produktua hainbat multi-marka dendetan salmentan ipiniko dugu. Honi esker, lortuko dugu gure produktuaren salmentak gora egitea eta irabaziak askoz handiagoak izango dira. Multidenda hauekin hitz egin dugu, gure produktua haien dendetan saltzeko:

EL CORTE INGLES

El Corte Ingles, Madril, Espainian sortu egin zen eta 1890tik funtzionamenduan dago. Multidenda hau, ia Espainako hiri guztietan eta Europako beste hainbat lekuetan aurkitu ahal duzue. Honen



ondorioz lortuko duguna, gure marka askoz gehiago zabaltzea izango da, eta mundu osoan ezagunak izatea. El Corte Ingles denda guztietan aurkitu ahal dira gure produktuak, eta hauek "arropa" sekzioan kokatzen dira.

KIROLAK

Beste denda hornitzaile bat, Kirolak izena du. Honen funtzioa, El Corte Ingles-ek duen berdin-berdina da, marka askoz gehiago zabaltzea populazioan. Multidenda hau, Euskal Herriko hiri guztietan aurkitu ahal da.

kirolak
Moving people

FORUM SPORT

Gure hirugarren denda hornitzailea, Forum Sport izena du. 1991an Bizkaian sortu zen eta hortik aurrera, arropa dendarik hoberenatarikoa izan da. Hurreko biak bezala, funtzioa marka ahalik eta gehien zabaltzea da. Guzti honekin errezago izango da gure enpresa eta marka garrantzitsuagoa izatea



Denda hauek Espainia maila osoan aurkitu ahal dira, eta ia Herrialdeko hiri garrantzitsu eta handi guztietan dago.

Proiektua martxan ipini egingo dugu eta dena ondo funtzionatzeko eta arazorik ez izateko hainbat gauza ezberdinekin erlazionatuko gara:

BANKUA

Arrisku fiskalak ez izateko, nahiz eta ekonomikoki guzti-guztia ondo egin, bankuarekin erlazioa izango dugu. Hau izango da gure diru-sarrerak gordetzeko leku nagusia. Hemen, irabazten dugun diru guztia gorde eta arazorik gabe gure negozioarekin jarraituko dugu.

SEKTORE PUBLIKOA

Gure proiektuarekin hasteko, diru asko inbertitu beharko dugu hasieran. Horretarako guk, jabeek, diru asko jarriko dugu baina estatuak diru-laguntza batzuk eman dizkigu hau martxan jartzeko.

PERTSONA KOLABORATZAILEAK

Gure produktuaren irudia herrialde osoan zabaltzeko, hainbat pertsona kontratatu ditugu iragarkietan agertzeko; telebistan, ordenagailuan, mugikorrean... Pertsona asko kontratatu ditugu honetarako; hainbat "influencer" kontratatu ditugu; hala nola, Paula Gonu, Lola Indigo eta DjMariiorekin hitz egin dugu. Gainera beste hainbat pertsona garrantzitsu kontratatu ditugu gu laguntzeko.

